


Euskal AEko industria-jarduera % 0,3 hazi da 2024ko abenduan

2024. urteko balantzea produkzioaren % 0,9ko jaitsierarekin itxi da

2024ko abenduan, lan-egutegiko baldintza homogeenetan, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 0,3 handiagoa izan zen, Eustatek landutako datuen arabera. Hala ere, 2024. urte osoko balantzea industria-produkzioaren % 0,9ko jaitsierarekin itxi da.

Aurreko hilaren aldean (2024ko azaroa), Euskal AEko industria-jarduera % 1,3 gehitu da azken hilabete honetan, dagozkion urtaro-ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Energiaren* produkzioan urte arteko % 7,7ko igoera izan da. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Bitarteko ondasunetan sartzen dira metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, eta hauetan produkzioak ere gora egin du 2024ko abenduan, % 0,6 aurreko urteko hil beraren aldean.

Kontsumo-ondasunek, aldiz, urte arteko portaera negatiboa izan dute 2024ko abenduan, eta produkzioa % 3,0 jaitsi da sektore osoan. Izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 8,3ko murriztu dira (besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa); eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* produkzioa ere % 1,6 jaitsi da. Azken horien artean daude elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea.

Ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigitza barne hartzen dituzten *Ekipo-ondasunen* produkzioa % 0,1 jaitsi da aurreko urteko abenduaren aldean.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
Indize orokorra			
Euskal AE	0,3	-0,9	1,3
Araba/Álava	-1,4	-2,5	2,6
Bizkaia	1,9	-0,5	1,4
Gipuzkoa	-0,3	-0,4	0,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-3,0	-0,9	0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,3	-3,0	1,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,6	-0,3	-0,2
Ekipo-ondasunak	-0,1	-1,1	2,6
Bitarteko ondasunak	0,6	-0,5	1,8
Energia	7,7	0,8	8,0

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren artean (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Otsailaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2024ko abenduan Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian, % 1,9ko igoerarekin. Araban, aldiz, produkzioa % 1,4 jaitsi da eta Gipuzkoan % 0,3.

Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, urte artean, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 15,4) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 2,2) sektoreetan igo da gehien produkzioa. Aitzitik, 2024ko abenduan urte artean jaitsierarik handienak izan zituzten sektoreak hauek izan ziren: *Garraio-materiala* (% 3,5) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (% 1,5).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Abendua 2024

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-0,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,9
Kaubua eta plastikoak	-0,5
Metallurgia eta produktu metalikoak	2,2
Materiala eta tresna elektrikoak	-1,5
Makineria eta tresneria	0,9
Garraio-materiala	-3,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	15,4

(p)Behinbehinekoko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Otsailaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2024. URTEKO BALANTZEA

2024ko hamabi hilabeteetan, industria-sektorean metatutako jaitsiera % 0,9koa izan da. Bilakaera negatibo hori bereziki *Kontsumo-ondasun iraunkorren* eta *Ekipo-ondasunen* portaerari zor zaio, urte osoan % 3,0ko eta % 1,1eko jaitsiera metatuak izan baitituzte, hurrenez hurren. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 0,3 jaitsi dira 2023. urtearen aldean, eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,9. *Bitarteko ondasunetan*, 2024an metatutako produkzioa aurreko urtean baino % 0,5 txikiagoa izan da. *Energiaren* ekoizpenak, aldiz, % 0,8ko hazkunde metatua izan du.

Urteko tasa metatuak negatiboak dira hiru lurralde historikoetan: Araban urteko jaitsiera % 2,5ekoa izan da, Bizkaian % 0,5ekoa eta Gipuzkoan % 0,4koa.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **% 77,94ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: \[servicioprensa@eustat.eus\]\(mailto:servicioprensa@eustat.eus\)](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62